

**ZEHAR GALDERAK: BA-
DENBORAZKO PERPAUS TXERTATUEN ADIBIDE
KURIOSO ZENBAIT**

Donostia, 1982-V-28

Miren Azkarate Villar

Aita Fray Pedro Antonio Añibarro: escu-liburua ta berean eguneango cristiñau-cereguñác

Añibarroren *Escu-liburua* irakurtzean aurkitu ditudan puntu harrigarri batzuk aipatu nahi nituzke lantxo honetan. Honako hauek hain zuzen ere:

1. Zehar galderak.
2. Denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso batzuk.

Zehar galderak

Guztiok dagiku -N dela horrelako perpaus txertatuek daramaten erlazio atzizkia. Bestalde, galderazko perpausak bi eratakoak izan daitezke:

- bai/ez motakoak,
- galdetzaileren bat erabiliaz egiten ditugunak.

Azken hauek Añibarrok -N atzizkia aditz laguntzaileari loturik osatuko ditu, normalean egin ohi den bezala:

“ta ulertu eidazu cer eguin, ta cer ichi bear dodan Jangoicoaren borondatea betétaco” (1’).

“Gogorà ecartzu, cer zarean zu, ta cér Jangoicoa” (14).

“Beguir a zaitez, celàn vici zarean: aracatu, cetan utseguiten dòzun: cec jausi ta irau-erazoten-zaituas aracò ecanduzco becatuan” (15).

“Erabagui orain ganic celan emongoduzun demporeà” (23).

Aldiz, bai/ez motako zehar galderetan ez du -N erabiliko erlazio atzizki bezala, BA- baizik. Hauek dira nik jaso ditudan adibideak:

“eztàquit eldùco banas arratserà” (7).

“Beguiratu, gogarte onec adierazoten deutsuen antzera vici bazarà” (15).

“eta beguira, ondo eguin badozuz lenagoco confesiñoac” (45).

“eta eztàquit eguiaz, Jangoicoac parcatu badeust” (53).

“eta benetan, eztaquit, jausicò banas, ifiniric pelligrú, ta galvidean” (53).

“Beguira, celan eguin-cenduan lenagoco Confesiñoa lotsaz, edo azturic ichi ete cenduan becuric; cumpli-bozuz Confesoren aguinduac... ucatu-badozu fedea: sinistu-bozu cerbait... edo egon bazara vorondatez badaezpadan, alan danez.

Iracasi edo esan badozu, becatu dana, eztala... uste-izan badozu, deunguero vici arren beti, salvatuco zareala... Euqui badozu gorrotoa Jangoicoagan... Emon bozu siniste osoa sorguinqueria, ismu uts, etorquizun amese-coai... Jangoico, edo Santuen contra birao, edo madaricaciñoric ezarri bozu... Promes, edo votoren bat cumpli-zaga, ichi badozu.

Elexan ostu, edo beste gauza charric eguin badozu: Eguin badozuz bere demporan Fede, Esperanza, ta Caridadeco eguintzac” (126-28).

“Beguira, eguin badozu juramentu guzurrezcoric...

Calteren bat iñori etorri bajaco... juramentu eguin badozu.

Emon-badozu videa besteai, guzurraz juramentu eguiteco...

Ezarri-bozuz biraoac...” (128-9).

“Adi-zaitte, celan emon dozuzan Jaiac, ta Domecac: Mez osoa ondo, ta beti-enzun-bozu: Mezea uts eguiteco pelligruan ifini bazara: iñor zure erruz enzun бага gueratu bada: Mezan vorondatez devociño бага egon bazara...

Premiña andi бага, bearric eguin, edo eguin-erazo badozu...

Santutu badozu Jai-eguna; eta berean becuric eguin dozunez: edo egu-nic gueiena jocoan, dantzan, ordi-lecuetan emon dozunez... Barau zaro egu-netan baraua galdu; araguia jan; nastatu arraiñaz; edo besteai janerazo badeutsazu, eurac ez equiela.

Garizuma demporan arrauntzac, gaztaya, edo ezne-jaquiric jan bozu Bulde бага.

Amarrenac, ta Primiciac zucen pagatu badozuz” (129-131).

“Beguira, galdu badeutsezu lotsea, obediencia, ta zor jaquen erreverencia ceure Guraso, edo Nagusiagoi: euqui badeutsezu, gorroto, beguiracune, gogortaderic; esan badeutsezu verba astumc... edo azau bozuz zarzaro, edo premiña demporan” (131-132).

“Guraso, edo Eche-Burua bazara, beguira ondo, celan, ta nondic dabilzen zure hume, ta oguipecoac... gaubaz echeric campora badabiltz: lau, bost urteric aurrera seme-alabac oean alcarre-gaz badatzaz...” (132).

“Gomute-zaitte, iñori gorrotoric euqui; gachic eguin... ondamu, eta icusi ecinic, euqui bozu... edo hume sortua ceure erruz galdu bozu; edo galduteco videric emon badozu.

Jan-edanean igaro, edo orditu bazara; edo jaquinic gach eguingo deutsula artu; edo besteai artuerazo badeutsazu jan edan caltegarriric” (133-134).

“Beguira emen... au eguiteco gogoa, ustea, edo guraria euqui badozu” (135).

“Beguira, ostu, edo ostuteco gogoa euqui badozu” (136).

“Beguira... tratu ta ameterietan vide baguetasunic eguin badozu” (137).

“Gogortu-eizu, guzurric esan bozu; eta bera esateaz, calte, edo aserracuntzaric erne bada” (137-8).

Honaino, bai/ez motako zehar galderan aditzak BA- daraman adibi-deak.

Hala ere, adibide hauetan beste forma bat ere ikusi dugu: -NEZ. Orain arte azaldu zaizkigun adibideez aparte liburuan aurkitu ditudan besteak hauek dira:

“Beguira... gogoz, esatez, edo eguitez ernegarazo dozuzanez” (132).

“Beguira emen, araguizco becuric pensamentuz, edo obraz eguin dozunez: euqui dozunez escuca loi, edo tocameturic, edo gauza ciquiñic ceuc ceure gorputzaz, edo besteacaz” (134).

“esaizu aidea, ezcondua, edo Voto castidazecoaz esturic dagoanez” (135).

“Bai ta confesa zaitte, badozu duda eguiazcoric au edo beste desonesqueria eguin, edo confesau dozunez” (136).

“Beguira... iñoen ondasunean calteric eguin, lagundu, aguindu, edo eguiteco vide deunguea emon; edo gauza ostua artu, edo estaldu dozunez.

Saldu-erosietan, artu-emonetan pisu, ta neurrian, joco, ta beste onela-coetan, trampa ta engañuric sartu dozunez: tratu ta ameterietan vide baguetasunic eguin badozu. Gauza charra, ontzat: merquea, carutzat: pisu laburra, betetzat emon dozunez” (136-137).

“Gogortu-eizu...nñogatic deunguero esan; gogo onaz enzun; juzgu deungueric arin eguin; besten uts-eguite, eta argaltasun ixilac zabaldu, ta aguertu dozunez” (138).

“bada eztaquit, berau danez azquenengo Confesiñoa” (149).

Beraz, ifarraldekoek erabili zuten -N + EZ erabiliko du, nahiz -N bakarrik ez erabili. Eta, noski, noiz bat eta noiz bestea, ez dut uste erregelarik eman daitekeenik.

Baina bada hirugarren galdera mota bat ere: erretorikoa, guk OTE-ren bidez egiten duguna, alegia. Eta hemen, bai, -Ndun forma erabiliko du zehar galderako aditzean!

“Euqui arren demporea, euquico eté dodan ataracò gogoà, eta boronda-teà” (61).

“Beguirà, celan eguin-cenduan lenagoco Confesiñoa: lotsaz, edo azturic ichi ete cenduan becuric; cumpli-bozuz Confesoren agiunduac, ta penitenciac” (126).

“Bildur nas euquico ete dodan astia, elduteco Confesorearen oñetara!” (140).

Lehen puntu honetan esandakoa laburtzeko, honako eskema emango genuke:

a) Galdetzaile bidez egindako zehar galderetan -N.

b) Bai/ez motako zehar galderetan aditzak -NEZ edo BA- hartuko du erlazio hizki bezala, baina ez -N soilik.

c) Zehar galdera OTEren bidez emana badator, -N soilik aurkituko dugu.

Eskema honetako lehen bi puntuen arteko diferentzia ondo asko ikus daiteke azken adibide honetan:

“Guraso, edo Eche-Burua bazara, beguirà ondo, celan, ta nondic dabilzen zure hume, ta ogupecoac; celan daquien Doctrinea: nos confesetan direan: nogaz lagunduten direan: gaubaz echeric campora badabiltz: lau, bost urteric aurrera seme-alabac oean alcarre-gaz badatzaz...” (132).

Badirudi BA- horren eravilera espainolaren eragina litzatekela, gaur egun batez ere gazteen artean indar handia hartzen arituko litzatekelarik.

Denborazko perpaus txertatuen adibide kurioso zenbait

Denborazko perpaus txertatuetan, beste forma batzuekin batera, -ENEAN daraman aditza erabiltzen dugu txertakuntza mota hori adierazteko. Añibarrogean ere aurkituko dugu horrelako adibiderik:

“*Zorion beticoa*, esan oieban leguez San Felipe Neric, opa eutsenean andiqueria bat” (63).

“ce lotsari gogorrean icusi cinian, billostu cinduenean neurribaco genteen aurrean” (201).

“Jaio zanean Zure Semea beti Doncella zu ichiric” (218).

“Jerusalengo Elexan bere Semea Ama Virgiñeac opa, ta esquiñi eba-
nean” (219).

“Berroquei egun igaro eta/Cerura igo zanean/gloriotsua an jarri eban/
Aita bereac aldean” (224).

Baina, nolabait esatearren forma “normal” hauekin batera, lau bider, segidan, eta atal horretan bakarrik, NOS menpeko perpausaren hasieran ipi-
niaz egingo du subordinazioa (aditzari -N erantsiz, azkenengoan ezik):

“Fedeac iracasten deuzcu, ta Jesu-Cristoc adierazo euzcuzan Judicio
aurrean jasoco direan icusgarri icaragarriac.

I. Izango dira asco, ta andiac...

II. Izangò dira nos guichien uste dogun: nos mundutarrac guichien
ichadongò dabèn: nos munduan becatu gueiago eguingo dan; eta nos mun-
duac, onduteco, demporaric euquico eztabenean” (39).

Nola interpretatu datu harrigarri hau? Alde batetik badakigu Añibarrok
lapurtarrak ezagutzen zituela (Axularren *Gero* berak itzuli zuen bizkaierara)
eta pentsa daiteke haiek erabiltzen zuten “noiz eta ere” egituraren antzeko
zerbait erabili nahi izan zuela:

“Mariana gizon jakintsun hark noiz eta ere arbuiatzen, eta mesprezatzen
baitu bere ustez gure eskuara, orduan emaiten darot...” (Etxeberri Sarakoa).

Baina orduan ez genuke izango azken kasuko -ENEAN; gehienez ere
lapurtarren BAIT-en ordezt, -N genuke euskaraz.

Beste interpretazio posible bat “kalko”arena litzateke, nahiz eta arraro
samarra izan hain erdarakada nabarmenean erortzea.